



JOG/AIO

38P Res. 6.078-C/2018

EBAZPENA - RESOLUCION

Donostia, 2018ko azaroaren 6a

San Sebastián, 6 de noviembre de 2018.

Errepideetako zuzendari nagusiaren 2018ko abuztuaren 30eko 4.474-C/2018 Ebazpenaren bidez proiektu hau onetsi zen idatzitako **GI-627 ERREPIDEAN (29,600 KP), OINEZKO IBILBIDEAN, TRAFIKOA MANTSOTU ETA SEGURTASUNA HOBETZEKO NEURRIEN PROIEKTUA (1-SV-9/2018)**.

Por Resolución 4.474-C/2018, de 30 de agosto de 2018, de esta directora general de Carreteras, se aprobó el **PROYECTO DE MEDIDAS DE CALMADO DE TRÁFICO Y MEJORA DE LA SEGURIDAD VIAL DE LOS PEATONES A LA ALTURA DEL P.K. 29,600 DE LA CARRETERA GI-627 (1-SV-9/2018)**.

Ebazpen horretan bertan onetsi zen, halaber, aipatutako obrak kontratatzeke baldintza administratibo berezien agiria. Litzitazioaren oinarritzko aurrekontua 130.737,04 euro zen, gehi % 21eko BEZari dagozkion 27.454,78 euro, eta lana egiteko epea zortzi aste.

También se aprobó en la misma Resolución el pliego de cláusulas administrativas particulares para la contratación de las obras señaladas con un plazo de ejecución de ocho semanas y un presupuesto base de licitación de 130.737,04 euros, más 27.454,78 euros en concepto de IVA (21%).

Kontratazio espedientea ere onetsi zen eta kontratua prozedura ireki sinplifikatuaren bidez eta prezioa irizpide bakartzat hartuta esleitzeko prozedurari hasiera ematea erabaki zen.

Además, se aprobó el expediente de contratación y se dispuso la apertura del procedimiento de adjudicación mediante procedimiento abierto simplificado, con el precio como único criterio de valoración.

Litzitazioaren tramiteak egin ondoren hiru proposamen aurkeztu ziren, eta guztiak onartu ziren.

Realizados los trámites licitatorios correspondientes se presentaron tres proposiciones.

2018ko irailaren 28an, bi zb. fitxategi elektronikoa (fitxategi bakarra) publikoki ireki ostean, eskaera ekonomikoak hurrengoak dira:

Tras la apertura pública, en fecha 28 de septiembre de 2018, del archivo electrónico nº2, archivo único, las ofertas económicas son las siguientes:

	Enpresak Empresas	Eskaintza ekonomikoa (BEZik gabe) Oferta económica (sin IVA)
1	ASFALTOS Y CONSTRUCCIONES MORGAS SL	124.200,18 €
2	EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO SL	126.291,98 €
3	URBYCOLAN SL	130.737,04 €

Fitxategi elektronikoa hori ireki ostean, kontratazio-mahaiak antzeman zuen ASFALTOS

Tras dicha apertura, la mesa de contratación advirtió que la empresa ASFALTOS Y



JOGIAIO

38P Res. 6.078-C/2018

Y CONSTRUCCIONES MORGA, SL enpresak (eskaintza merkeena) ez zuela kaudimena egiaztatzen.

Errekerimentuak egin zitzaizkion eta aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, Kontratazio-mahaiaren RES-MC-2018-0005 Ebazpenaren bidez lizitazio prozesutik enpresa horren eskaintza baztertu zen.

Bazterketaren ondoren, kontratazio-mahaiak adierazi du EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO, SL enpresaren eskaintza dela merkeena. Beraz, baldintza administratibo berezien agiriko 31. artikulua xedatzen duenaren arabera, enpresa horren aldeko esleipen-proposamena aurkeztu du.

Dagokion errekerimendua egin ondoren, enpresak egiaztatu du **6.314,60** euroko behin betiko bermea jarri duela, eta, gainera, aurkeztu du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 159. artikuluan eskatutako dokumentazioa.

3/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan sartzekoak, 5.4 artikuluan honela dio: *"Hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean jasoko da eta, halaber, kontratzailearen profilean argitaratuko da, enpresa esleipendunak adierazita badauka kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikagarri zaiela halako hitzarmen kolektiboa."*

Ondorioz, 20/2016 Foru Dekretuak, uztailaren 19koak, 4.2.a) artikuluan kontratazio arloan emandako eskumenak erabiliz, Bide Azpiegituretako Departamentuko zuzendari nagusiak,

CONSTRUCCIONES MORGA, SL (oferta de precio más bajo) no acreditaba la solvencia.

Realizados los requerimientos oportunos y analizada la documentación presentada, mediante Resolución RES-MC-2018-0005 de la Mesa de Contratación se excluyó del proceso de licitación la oferta de la citada empresa.

Tras la citada exclusión, de conformidad con la cláusula 31 del pliego de cláusulas administrativas particulares (adjudicación al precio más bajo), la mesa de contratación ha presentado la propuesta de adjudicación a favor de EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO SL, por ser la oferta con el precio más bajo.

Realizado el oportuno requerimiento, la citada empresa ha acreditado la constitución de la garantía definitiva por importe de **6.314,60** euros y ha presentado la documentación exigida en el artículo 159 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

De conformidad con lo establecido en el apartado 4 del artículo 5 de la Ley 3/2016, de 7 de abril, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública, en la resolución de adjudicación debe indicarse la información sobre el convenio colectivo que la empresa adjudicataria declare aplicable a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato, información que deberá publicarse asimismo en el perfil de contratante.

En consecuencia, esta directora del Departamento de Infraestructuras Viarias, en uso de las facultades conferidas por el artículo 4.2.a) del Decreto Foral 20/2016, de 19 de julio,

EBAZTEN DU

RESUELVE



JOG/AIO

38P Res. 6.078-C/2018

Lehenengo.- EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO, SL, enpresari esleitzea obra kontratu hau: **GI-627 ERREPIDEAN (29,600 KP), OINEZKO IBILBIDEAN, TRAFIKOA MANTSOTU ETA SEGURTASUNA HOBETZEKO NEURRIEN PROIEKTUA (1-SV-9/2018)**. Enpresaren eskaintzaren arabera, kontratua gauzatuko da **ehun eta hogeita sei mila eta berrehun eta laurogeita hamaika euro eta laurogeita hemezortzi zentimoan (126.291,98 €)**, gehi % 21eko BEZari dagozkion **hogeita sei mila bostehun eta hogeita bat euro eta hogeita hamabi zentimo (26.521,32 €)**, eta **zortzi asteko (8) epean** egiteko.

Esleipen koefizientea **0,965999995** da.

Bigarren.- Enpresa horren alde xedatzea **152.813,30 euro** (BEZa barne), 2018ko aurrekontuko 1.0710.100.611.02.13 partidaren kontura.

Hirugarren.- Obretako zuzendaria eta kontratuaren arduraduna izendatzea Girder Ingenieros, SL enpresako Lorena Martin Arsuaga.

Obra Zuzendaritzako kide izango da, halaber, segurtasun eta osasun gaietako koordinatzailea, Girder Ingenieros SL. enpresako Iker Portela Hernández.

Laugarren.- Eraikuntzako eta Obra Publikoko Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboa da kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa.

Bosgarren.- Esleipen hartzaileari eskatzea esleipena jakinarazten den egunaren hurrengo egunetik hasi eta **BOST EGUN BALIODUNEN** barruan ager dadila, Departamentuko

Primero.- Adjudicar el contrato de realización de las obras del **PROYECTO DE MEDIDAS DE CALMADO DE TRÁFICO Y MEJORA DE LA SEGURIDAD VIAL DE LOS PEATONES A LA ALTURA DEL P.K. 29,600 DE LA CARRETERA GI-627 (1-SV-9/2018)** a la empresa **EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO, SL**, conforme a su oferta por un importe de **ciento ventiseis mil doscientos noventa y un euros y noventa y ocho céntimos (126.291,98 €)**, más **veintiseis mil quinientos ventiu euros con treinta y dos céntimos (26.521,32 €)** y un plazo de ejecución de **ocho semanas (8)**.

El coeficiente de adjudicación se cifra en **0,965999995**.

Segundo.- Disponer un gasto de **152.813,30 euros** (IVA incluido) a favor de la citada empresa, con cargo a la partida presupuestaria 1.0710.100.611.02.13 del presupuesto del 2018.

Tercero.- Designar para la dirección de las obras y responsable del contrato a Lorena Martin Arsuaga, de la empresa Girder Ingenieros, SL.

Asimismo, en la Dirección de la obra estará integrada el coordinador de Seguridad y Salud, Iker Portela Hernández de la empresa Girder Ingenieros, SL.

Cuarto.- El convenio colectivo que será de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato es el Convenio Colectivo de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa.

Quinto.- Requerir a la adjudicataria para que dentro del plazo de **CINCO DÍAS HÁBILES** a contar desde el día siguiente al de la notificación de la adjudicación se persone en las Oficinas del



JOG/AIO

38P Res. 6.078-C/2018

Kontratazio Zerbitzuaren bulegoan kontratua sinatzera.

Servicio de Contratación del Departamento para proceder a formalizar el correspondiente contrato.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Ebazpen honen aurka, GORA JOTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaioke interesdunek Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatuari. Horretarako, HILABETEKO epea dute jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez dezakete.

La presente Resolución no pone fin a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer RECURSO DE ALZADA ante la diputada foral del Departamento de Infraestructuras Viarias en el plazo máximo de UN MES contado a partir del día siguiente al de su notificación, sin perjuicio de utilizar cualquier otro recurso que estimen pertinente.

ERREPIDEETAKO ZUZENDARI NAGUSIA / LA DIRECTORA GENERAL DE CARRETERAS

Izpta. / Fdo.: Silvia Pérez Yéboles.

NORI JAKINARAZIA / COMUNICADO A:
EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO SL
URBYCOLAN SL

ESKORIATZAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA
GIRDER INGENIEROS, S.L.

FINANTZA ETA AURREKONTUETAKO ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN DE FINANZAS Y PRESUPUESTOS